

Hiru ikasgela gutxiago izanen dira Ipar Euskal Herriko hezkuntza sare publikoan

Departamenduko eskola mapa osatu berri dute Hezkuntza Nazionaleko ordezkariak

Lutxi Fourcade / Mugerre

ERREKO Herriko Kontseilua haserre dago, eta ezohiko bileran egin du ikasgela publiko baten itxeko mehatxuari buru egitea. Izan ere, CDEN (Hezkuntza Nazionaleko Departamenduko Kontseilua) bildu da joan den ostiralean eskola mapa osatzeko. Pauen, eta ikasgelaren banaketa finkatu du departamenduaren zatitaketan. Bildutako ordezkariak proposamen bat baizik ez dute egin; gaurak finkatuko dira martxoko lehen asteetan, baina Mugerreko hautetsiak beldur dira Akademiaren erabakiak herriko geroa zalantzan jarriko duen.

«Ikasle kopurua hurbiletik ikusirik, ez da inolako arrazoirik gela bat itxeko», azaldu zuen Gilbert Larcebeau Mugerreko auzapezak. Desmartxa ugari egin dute herriko zortzi gela irekirik atxikitze eta hitzordu bat eskatu diote Gilles Bouilhaguet prefetari, bestelako oihartzun bat entzunazteko. Izan ere, prefetak du kudeatzen CDEN batzordea, eta Mugerreko Udala bilduko da berarekin datorren ostiralean. «Administrazioak ez ditu bere zenbaketetan sartzen 2-3 urteko haurrak, eta 182 haur kontatu ordez, 163 bakarrik kontatu ditu». Era berean, etxe ugari egiten dira herrian, eta, auzapezaren ustez, beste galdera bat sortuko da datoen hilabeteetan. Mugerreko herria hasi zen eskola berria eraikitzen 1987an, eta urtez urte eraikuntza handitu du. Oro har, 9 milioi liberako inbertsioa egin du (225 milioi pezeta inguru), eta «Akademiaren erabakia onartezintzat» jo du Udalak. «Urtez urte gure herria garatzen ari da, eta kalitatezko zerbitzu publikoa eskaini behar dugu haurrak herrian atxikitze».

Otsaileko oporrak hasi baino lehen, Frantziako Hezkuntza Nazionaleko ordezkariak elkartzen ohi dira ondoko ikasturteko eskola mapa osatzeko. Zabaldutako proiektuak bazterrak inarrosi ditu eta hainbat herrik ez dute amore emateko asmorik.



Mugerreko Herriko Etxeko arduradunak haserre agertu ziren Departamenduko hezkuntza ordezkariak hartutako erabakiarekin.

BOB EDME

Hiru euskara-irakasle lanpostu berri

Ikasle kopurua aldatzen baita urtez urte, Pierre Polivkak departamenduko ikuskariak eskola mapa egokitu behar du udaberrian, eta haserre franko pizten ohi dute haren proiektuek. Hezkuntza Nazionalak helburu nagusiak finkatzen dizkio eta ikuskariak aurretik badaki zenbat lanpostu banatu behar dituen. 1997ko sartzeari dagokio-

nez, ikuskariak zabaldu zuen 24 gela itxeko proiektua departamenduan, eta Ipar Euskal Herriari dagokionez, 13 gela desagertu behar ziren.

Azken finean, eztabaida luzeen ondoren, zortzi gela bakarrik itxi-ko ditu Ipar Euskal Herrian: Baionan (2), Ziburun (2), Hendai, Maulen, Izpura eta Mugerren. Era berean, bost gela irekiko ditu: Miarritzen (3), Hen-

daian eta Angelun, eta, halaber, hiru euskara-irakasle lanpostu sortuko ditu.

Departamenduak bost irakasle lanpostu itzuliko dizkio ministerioari, baina Polivkak azpimarratu zuen beste lanpostuak espero zituela sartzearantz. Alabaina, irakasle postu horiek banatzeko lehentasunak finkatu ditu CDENek, eta, besteak beste, Urruña, Basusarri eta Larresoreko eskolak ageri dira lehentasun horiek zehaztuz egindako zerrendan. Iraileko sartzean izanen den benetako ikasle kopuruaren arabera, lan postuak zabalduko dituzte. Zernahi gisaz, 18 gela itxi arren departamenduan osoan, Polivkaren ustez «ikasleak zaintzeko tasa nahiko gora izanen da». Lehen mailan 24,6 ikasle izanen dira gela bakoitzean eta ama ikastoletan, berriz, 26 ikasle. X

Erlezaintzari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Gipuzkoan

■ Ezti probaketa egingo da ostiralean Donostiako Miramar jauregian

Erredakzioa / Donostia

ERLEZAINZARI buruzko jardunaldi teknikoak antolatu ditu Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak. Otsailaren 14an eta 15ean egingo dira jardunaldiak, Donostiako Miramar jauregian. «Erlezaintza ezagutarazi eta gizarteratzeko balioko dute» jardunaldiek, Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen ustez. «Erlearen eta eztiaren inguruko mundua aski ezezaguna da oraindik ere, nahiz ezta Euskal Herriko etxe askotan dagoen», dio elkarteak kaleratu duen prentsa oharra. Hala ere, badago beste helburu bat: «Erlezainen prestakuntza hobetzea, azkanean poliki-poliki emaitza hobea lortzeko asmotan».

Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak 1985. urtean sortu zen, eta egun 500 bazkide ditu. Gipuzkoan milalorea izeneko ezti mota lortzen da batez ere: «Erleak era askotako loreetan ibili ondoren egiten duena. Urteko sasoi jakin batean izaten da akazia ezirik ere, eta gaztainarena, laharrena eta sagar lorearena». Erle motei dagokionez, bertakoa da ugariena, *apis mellifera* esaten zaiona.

Gipuzkoako eztien probaketa

■ Larunbatean, hilak 15, Gipuzkoako eztien probaketa egingo dute jardunaldietara hurbiltzen direnek. Probatzeak hiru lan eskatzen ditu: begiratzea, usnatzea eta jatea.

«Jende guztiak daki ezti oso elikagai ona dela», dio Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak. «Mediku pediatria batzuek biziki gomendatzen dute haurrentzat, haur osasuntsuak izan daitezten. Kirolariak egunero baliatzen dira eztiak. Adineko asko eztiari esker mantentzen dira sasoi onean. Izan ere, zenbait jakitunen iritziz, abantaila nabarmenak dakartza giza gorputzarentzat». X

EHUn iaz defendatu zituzten doktore tesien % 7,3 euskaraz eginak ziren

■ Filologia, Geografia eta Historia fakultatean egin zen euskarazko tesi gehien

Erredakzioa / Bilbo

IAZ Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) defendatu zituzten 218 doktore tesietatik 16 (% 7,3) euskaraz eginak ziren eta guztiak gai *cum laude* izendatu zituzten. Horrela jasotzen da *Campus* Euskara Errektoreordetzaren berripaperaren azken alean.

EHUk dituen hiru kanpusetan 218 doktore tesi defendatu eta onetsi ziren 1996. urtean, aurreko urtean baino tesi bat gehiago eta 1987. urtean baino 118 tesi gehiago. «Horrek esan nahi du hamar urtean ikerkuntzak eta goi mailako ikasketek gorakada nabarmena izan dutela EHU», dio *Campus*-k.

Kopuruei dagokionez, doktore tesi gehien Medikuntza Fakultatean defendatu ziren, guztira

39. Ondoren honako fakultate hauek datoz: Zientziak (38); Industria eta Telekomunikazioak (24); Filologia, Geografia eta Historia (19); Gizarte eta Komunikazio Zientziak (17); Kimika (15); Psikologia, Filosofia eta Hezkuntza Zientziak (13); Ekonomia eta Enpresa (11); Arte Ederrak (10); Farmazia (8); Informatika (6) eta Zuzenbidea (4).

Hamar urtean (1987tik 1996ra) EHU biderkatu baino gehiago egin dira doktore tesiak, hain zuzen, 100 tesitik 218ra pasatu dira.

Euskaraz defendatzen diren doktore tesien kopurua askoz ere apalagoa da, kopuru orokorrekin alderatuz gero. Hala ere, horiek ere hazkunde aipagarria izan dute azken hamar urteotan.

Horrela, iaz 16 doktore tesi de-

fendatu ziren euskaraz eta gai *cum laude* izendatu zituzten. Aurreko urtean baino bost tesi gehiago eta 1987an baino 13 gehiago. Beraz, duela hamar urte euskarazkoak tesi guztien % 3 ziren, eta 1996an % 7,3. Beraz, azken hamar urteotako hazkundeak % 5,2koa izan da.

Fakultateka, Filologia, Geografia eta Historia izan da euskaraz tesi gehien aurkeztu duena, hain zuzen ere, bost tesi. Bina doktore tesirekin lau fakultate daude: Industria eta Telekomunikazioak, Arte Ederrak, Zientziak, eta Filosofia eta Hezkuntza Zientziak. Honako hiru fakultate hauetan, berriz, tesi bana aurkeztu zen euskaraz: Psikologia, Bilboko OHOKo Irakasle Eskola eta Gizarte eta Komunikazio Zientziak. X



HONDARRIBIKO UDALA

IRAGARKIA

GOBERNUZ KANPOKO TALDE EDO ERAKUNDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 1997ko otsailaren 6ko Udalbatzaren akordio bidez onartua izan zenez, eskararak aurkezteko 30 egun naturaleko epea zabalduko da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta.

Oinarriak eskura daitezke Hondarribiko Udaltxeko Erregistro Orokorrean, Kale Nagusia, 20-Behean.

Hondarribia, 1997ko otsailak 7.
ALKATEA.